

## Tituluen ziurtagiriak

Litekeena da hurrengo LEPeen zure hizkuntza-eskakizuna edo eskatutako titulazio edo merezimendu gisa aurkeztu nahi duzun titulazioaren bat aurkeztu behar izatea. Titulua galdu baduzu, ziurtagiri bat lortzeko eta arazo hori konpontzeko baliabide hauek dituzu zure eskura. Dokumentu hauek eskuratzeko, zeure burua identifikatu beharko duzu ziurtagiri digitalaren bidez.

### 1. Unibertsitateaz kanpoko tituluak (graduatuak, batxilergoa eta LHa)

LOGSEren aurretik lortutako titulazioak (1991tik), Hezkuntza Ministerioaren webgunean:

<https://www.educacionyfp.gob.es/eu/servicios-al-ciudadano/catalogo/general/20/202363/ficha/202363.html>

LOGSEren ondorengo titulazioak, Hezkuntza Sailaren Ikasgunea webgunean:

<https://ikasgunea.euskadi.eus/eu/inicio>

### 2. Unibertsitateko titulazioak

Unibertsitate-titulu bat galtzen bada, kopia bat eskatzea ez da azkarra, ezta ekonomikoa ere. Bitartean, honako aukera hau dago:

Unibertsitate Titulu Ofizialen Kontsulta (Hezkuntza Ministerioa):

<https://www.educacionyfp.gob.es/eu/servicios-al-ciudadano/catalogo/general/99/997950/ficha.html>

Ministerioaren webgunean egiaztatu daitekeen dokumentu bat lortzeko aukera ematen du.

### 3. Hizkuntza eskakizuna

Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratua

<https://www.euskadi.eus/euskara-tituluen-eta-ziurtagirien-erregistro-bateratua/web01-a2etzeb/eu/>